

LEIHOTIK BEGIRA, Michael
Wolf



Honako argazki hau pikatutako argazki bat da, eta bertan ikus daitekeen pertsonak mugimendua transmitzen du. Nabarmentzen diren elementuak modu bertikal batean daude kokatuak, baina hauetaz gain, horizontalki kokaturik daudenak ere aurkitzen dira. Koloreei dagokienez, bi motatako koloreak aurkitzen dira, hau da, bai hotz eta baita beroak ere (urdinak, marroiak, grisak...). Argiari dagokionez, elementu honek garrantzia handia du. Honako hau barruan aurkitzen da, eta honi esker izan du egileak argazkia ateratzeko aukera. Argiak kanpoko eta barruko planoen arteko bereizketa bat egiten du, baina honetaz gain, ikuslea iluntasun batean murgildurik mantentzen du. Argazkilariak ikuslea ezkutuan mantentzea lortzen du, eta horrela, "kotilla" batean bihurtzen ditu, protagonistaren intimitatean sartzen baigara.

UME KUXKUXEROAK, Robert

Doisneau

Argazki honetako protagonistak ume batzuk dira, eta erdi erdian daude, argazkiaren lehenengo planoan. Ume hauek leihoaren barnean zerbait gertatzen ari denaren pista ematen digute, baina ikusleak ezin du jakin zer den, ez baita barnekoa ikusten. Leiho hau argazkiaren eskuinaldean dago kokaturik, bigarren plano batean, eta edozein etxeetako izan daitekeen leiho bat da. Ikuslea barnean zer gertatzen ari denaren jakin minarekin gelditzen da, zeren nahiz eta barrukoa oso interesgarri den ematen duen, ezinezkoa da jakitea zer dagoen.

Perspektibari dagokionez, honako hau lineala dela antzeman daiteke, marra guztiek ihes puntu batera eramaten baitituzte gure begiak, sakontasun handiago bat lortzeko nahiarekin

William Eggelleston

Argazki honetako elementurik nagusienak gortina, ispilua eta telebista dira. Ispiluaren islak gortinak biderkatzen ditu, baina ispiluan agertzen den irudia ez da benetako simetria. Argazkilariak argazkian agertzen diren elementu guztiak mozten ditu (ispilua, gortinak, sofa...), eta horrela, ikusleak ezin dezake jakin argazkia zeri aterata dagoen. Atentzio gehien deitzen duen elementuak gortinak dira, eta honako hau inguruko koloreen gainetik ezartzen direlako da.